




Gaitasun
digitaletan
prestakuntza

1

Informazioa edo datuak bilatzea eta kudeatzea






Gaitasun
digitaletan
prestakuntza



Informazioa eta datuak
bilatzea eta kudeatzea

B1 maila





Informazioa eta datuak bilatzea eta kudeatzea

AURKIBIDEA

1.1. NABIGATZEA, BILAKETAK EGITEA ETA DATUAK, INFORMAZIOA ETA EDUKI DIGITALAK IRAGAZTEA

- [*Eragileetan oinarritutako bilaketa-estrategiak*](#)

1.2. DATUAK, INFORMAZIOA ETA EDUKI DIGITALAK EBALUATZEA

- [*Joera jakineko informazioaren sorrera eta ondorioak*](#)
- [*Bilaketa baten emaitzen maneiu aurreratua*](#)
- [*Adimen artifiziala eta informazioa*](#)

1.3. DATUAK, INFORMAZIOA ETA EDUKI DIGITALAK KUDEATZEA

- [*Informazioa kudeatzea*](#)






DigitAll

Informazioa eta datuak
bilatzea eta kudeatzea

1.1

**NABIGATZEA,
BILAKETAK EGITEA
ETA DATUAK,
INFORMAZIOA ETA
EDUKI DIGITALAK
IRAGAZTEA**





Informazioa eta datuak
bilatzea eta kudeatzea

B1 maila 1.1

Nabigatzea, bilaketak egitea
eta datuak, informazioa eta
eduki digitalak iragaztea

Eragileetan oinarritutako bilaketa- estrategiak






Eragileetan oinarritutako bilaketa-estrategiak

Interneten nabigatzean, erabilitako bilaketa-tresnak edozein direla ere, emaitza ugari jasotzen dira kasurik gehienetan. Horregatik, hain zuzen, landu dugu ikasgai honen aurretik erabilitako bideoetan eta dokumentu osagarrietan bilatzaileek eta metabilatzaileek ematen duten informazioaren oinarriko iragazketa, bai eta gako hitzen erabilera egokia ere. Bilaketaren emaitzak murrizteko bitartekoak dira, nahiz eta, batzuetan, gure beharrak edo helburuak behar bezala betetzen ez dituzten emaitzak lortu. Hori dela eta, bada bilaketa-irizpideak are gehiago zehazteko modu bat ere: eragileak eta hitz erreserbatuak erabiltzea.

Eragileetan oinarritutako bilaketa-estrategiek termino edo hitz gakoak eta bilaketa-eragileak uztartzen dituzte, Interneten informazioa lokalizatu eta nahi ditugun emaitzak lortzeko.



i Informazio gehiago

Eragileetan oinarritutako bilaketa-estrategietan sakontzeko, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko liburutegiaren txosten hau kontsulta daiteke:

e.digitall.org.es/estrategias-busqueda

Bilaketa-eragileak termino desberdinen arteko erlazio kontzeptuala ezartzeko aukera ematen duten hitz edo sinboloak dira. Eragileetan oinarritutako bilaketa-estrategien helburu nagusia ahalik eta azkarren kalitate hobeko informazio digitala aurkitzea da.

Eragileok honela sailkatzen dira: **logikoak eta boolearrak; trunkamenduzkoak; eta posizionalak edo gertutasunekoak.**

o OHARRA

Aztertutako bilaketa-tresna guztiek (metabilatzaileak, online katalogoak, eta bilatzaileak edo bilaketa-tresnak) ematen dute aukera **eragile boolearrak** erabiltzeko, eta, espezifikotasunekin, baita **trunkamenduzkoak eta posizionalak** ere.




Eragile logikoak eta boolearrak

Eragile bolear klasikoak George Boole matematikariak sortutako Booleren aljebra dute oinarri. Hiru eragiketatan oinarritzen dira: produktua (AND), batura (OR) eta diferentzia (NOT). Eragiketa horiei XOR eragile logikoa gehitzen zaie.

OHARRA

George Boole


Aritmetika konputazional modernoaren oinarriak ezarri zituen matematikari britainiar ospetsua izan zen George Boole (1815eko azaroa-1864ko abendua). Konputazio-zientzien sortzaileetakotzat jotzen da.




George Boole. Iturria: [Commons Wikimedia](#)

AND eragileak aukera ematen du bi gako hitz edo terminoren **interseksioa** ezartzeko (1. irudia), eta, ondorioz, bilaketaren emaitzetan bi terminoak agertu behar dira derrigor.

Adibidez, Ciencia **AND** Sociedad (2. irudia). Nabigatzaileek (web-orriak, webguneak edo web-atariak) ematen dituzten bilaketa-emaitzak, zehaztu ditugun bi terminoen presentziaren arabera lortzen dira, ordena eta posizioa edozein dela ere. Hau da, 500 hitzeko testu batean, baliteke *ciencia* hitza hasieran agertzea eta *sociedad* hitza amaieran, edo alderantziz.



1. irudia. AND eragilearen irudikapena.



2. irudia. Google bilatzailean egindako bilaketaren emaitzak.

OHARRA


AND erabiltzea

AND eragilearen ordeez + sinboloa erabil daiteke, **interseksio** bera ezarriz.



OR eragileari handitze, lotura edo batuketa logikoko eragile esaten zaio, bi terminoak bereizita edo biak elkarrekin bilatzeko aukera ematen baitu (3. irudia).

Adibidez, Ciencia **OR** Sociedad (4. irudia) jarrita, batetik *ciencia* eta *sociedad* gako hitzekin lotutako banakako bilaketaren emaitzak lortuko lirateke. Bestetik, baina, bi terminoak testu berean dituzten informazioak ere sartuko lirateke emaitzetan.




3. irudia. OR eragilearen irudikapena.

OHARRA

OR erabiltzea


OR eragilea, batez ere, terminoak eta sinonimoak taldekatzeko erabiltzen da. Horrenbestez, nabarmen handitzen da bilatzaileak erakutsi beharreko emaitzen kopurua.




4. irudia. Google bilatzailearen egindako bilaketaren emaitzak.

NOT eragileak edo - sinboloa erabiltzeak aukera ematen du bigarren terminoa edo gako hitza bilaketatik kanpo uzteko (5. irudia).

Adibidez, Ciencia - Sociedad jarrita, soilik *ciencia* hitza duten emaitzak agertuko lirateke, *sociedad* dutenak baztertuta geratuz (6. irudia).




5. irudia. NOT eragilearen irudikapena.



6. irudia. Google bilatzailean egindako bilaketaren emaitzak (- eragilea).

XOR eragileak bi hitz gakorekin egindako bilaketaren emaitzak ematen ditu du, elkarren arteko interseksioak alde batera utzita (7. irudia). **Ciencia XOR Vida** jarriz gero, soilik *ciencia* eta *vida* hitzei lotutako emaitzak agertuko dira, hori bai, bi hitzak agertzen direnak baztertuta.



7. irudia. XOR eragilearen irudikapena.

Eragile logikoen erabilera konbinatua

Eragileak modu konbinatuan erabil daitezke, bai eta gako hitzetan oinarritutako bilaketa-estrategiekin lotutako sinboloak ere sartuta, adibidez komatxoak (","). Eragileak konbinatzeko, parentesiak erabili behar dira (). Adibidez, **(Ciencia AND Vida) OR (Ciencia AND Marina)** jarriz (8. irudia), *ciencia* eta *vida* hitzen arteko interseksioarekin eta *ciencia* eta *marina* hitzen arteko interseksioarekin lotutako emaitzak lortuko lirateke. Gainera, bi interseksioetan agertzen diren emaitzak ere jasoko lirateke.



8. irudia. Eragiketa konbinatuaren irudikapena.



Beste adibide bat honako multzo hauen intersekzioa izango litzateke: **(“Unión Europea” OR “Europa del Este”) AND (Política NOT Ciencia)**. Besteak beste, emaitzetan «*Política en Unión Europea*» edo «*Política en Europa del Este*» bezalako esaldiak agertuko lirateke. Aintzat izan behar da komatxoak erabiltzeak emaitzak are gehiago murrizten dituela, “*Unión Europea*” eta “*Europa del Este*” terminoak hitzez hitz agertzen diren emaitzak bakarrik lortuz. Aztertutako adibidean (9. irudia), emaitza hauek lortzen dira: (1) “*Unión Europea*” eta “*Europa del Este*” terminoekin eta elkarren arteko intersekzioarekin lotutakoak; (2) “*política*” terminoarekin lotutakoak, alde batera utzita bai “*ciencia*” terminoa bai “*política*” terminoarekiko intersekzioa; eta (3) aipatu bi multzoen arteko intersekzioa.



9. irudia. Eragiketa konbinatuaren irudikapena.

OHARRA

Eragiketa konbinatuen erabilera

Bi termino baino gehiago ez dituzten adierazpenetara mugatu behar dira. Nabigatzaileek eragile konbinatuak ulertzen badituzte ere, gehiegi erabiltzeak alferrikako emaitzak ekar litzake.

Trunkamenduzko eragileak

Trunkamenduzko hiru eragile mota daude: izartxoa edo biderketa-sinboloa (*), galdera-ikurra (?) eta komatxoak (",").

Izartxoak (*) hitz baten amaieran oinarritutako informazioa berreskuratzeko aukera ematen du. Adibidez, *herri** jarrita, *herria*, *herriak* edo *herritar* bezalako hitzak agertuko lirateke emaitzetan.

Izartxoa zenbait modutan erabil daiteke bilaketak egiteko orduan:

- **Ezkerreko trunkamendua.** Bilaketak izartxoaren osteko terminoarekin bukatutako emaitzak ematen ditu. Adibidez: *etxe jarrita, honakoak bezalako emaitzak lortuko genituzke: bi etxe, adreiluzko etxe eta abar.



- **Eskuineko trunkamendua.** Bilaketak izartxoaren aurreko terminoa duten emaitzak ematen ditu. Adibidez: *etxe**. Emaitza hauek emango lituzke bilaketak: *etxeak*, *etxe eramangarriak* eta abar.
- **Barruko edo tarteko trunkamendua.** Bi termino erlazionatzeko erabiltzen da, aurrizki bat eta atzizki bat zehazki. Adibidez, *immuno*kimiko* jarrita, emaitza hauek emango lituzke bilaketak: *immunohistokimiko*, *immunosaiakuntza kimikoa* eta abar.
- **Aldebiko trunkamendua.** Emaitzak aurrizkiak eta atzizkiak kontuan hartu gabe lortzeko erabiltzen da. Ezkerreko eta eskuineko trunkamenduak aldi berean erabiltzearen parekoa da. Adibidez: **etxea** jarrita, aipatu bi tipologiak barne hartzen dituzten emaitzak lortzen dira.

OHARRA*** erabiltzea**

Sarri * erabiltzeak ilundu eta zaildu egiten du bilaketa; beraz, benetan beharrezkoa denean bakarrik erabili behar da.

Galdera-ikurra, bestalde, termino baten barruan karaktere bat aurkitzeko erabiltzen da. Adibidez: *Et{x}a* jarrita, *etxea* duten emaitzak lortzen dira, eta, *e?xea* jarrita ere, *etxea* duten emaitzak lortzen dira.

OHARRA**? erabiltzea**

Ez da oso ohikoa ? eragilea erabiltzea, nabigatzaileek galdera-ikurra hitzen **definizioak** bilatzeko erabiltzen dela uste baitute berez. Adibidez: *Et{x}a?* jarrita, *etxea* hitzaren definizioa lortuko genuke.

Azkenik, komatxoek (""), gogoratuko duzun bezala, bilaketen emaitzetan esaldi zehatzak lokalizatzea ahalbidetzen du.

Eragile posizionalak edo hurbiltasunekoak

Eragile posizionalek bilaketa-emaitza berean terminoak edo esaldiak konektatzeko edo erlazionatzeko aukera ematen dute. Batzuek ordena-irizpideak izan ditzakete (edo ez).

- **SAME eragilea.** Bi termino agertzen diren erregistroak lokalizatzeo aukera ematen du, baina ez nahitaez perpaus berean. Adibidez, **Etxe SAME Urdin** jarrita, *etxe* eta *urdin* terminoak web-orri, webgune edo web-atari berean agertzen diren erregistroak itzuliko ditu bilaketak, agertzen diren ordena edozein dela ere. Hau da, lehenik *etxe* ager daiteke eta gero *urdin*, edo alderantziz.





- **WITH eragilea.** Esaldi berean ageri diren bi termino aurkitu nahi direnean erabiltzen da. Adibidez: **Etxe WITH Urdin** jarrita, *etxe* eta *urdin* terminoak esaldi berean agertzen diren emaitzak lortzen dira.
- **ADJ eragilea.** Zehaztutako bi terminoak agertzen diren emaitzak lortzen dira, baina bi terminoak elkarrengana hurbilduko dituen ordena bat ezarrita. Adibidez: **Etxe ADJ Urdin** jarrita, lehenik *etxe* hitza eta ondoren *urdin* hitza agertzen diren emaitzak lortzen dira. Normalean, bi hitzen arteko distantzia 15 hitz baino txikiagoa izango da.
- **BEFORE eragilea.** ADJ eragilea erabiltzean lortutakoen oso antzeko emaitzak lortzen dira **BEFORE** eragilearekin, hori bai, aintzat hartu gabe zehaztutako bi terminoak elkarrengandik hurbil dauden ala ez. Adibidez: **Etxe BEFORE Urdin** jarrita, emaitzetan, lehenik, *etxe* hitza agertuko da, eta, gero, *urdin* hitza, elkarren arteko distantzia edozein dela ere. Bestela esanda, bi terminoen artean 1.000 hitzeko testu bat ager daiteke lasai asko.
- **NEAR eragilea.** AND eragile boolearraren antzekoa da **NEAR** eragilearen funtzioa. Hori bai, zehaztutako intersekzioarekin lotutako emaitzek baldintza hau bete behar dute: zehaztutako bi terminoen arteko distantzia 25 hitzetik beherakoa izatea. Adibidez: **Etxe NEAR Urdin** jarrita, emaitzetan, *etxe* eta *urdin* terminoak agertuko dira, bi terminoen arteko ordena edozein dela ere, eta, esan bezala, bi terminoen arteko distantzia 25 hitzetik beherakoa izanik.
- **NEAR/n eragilea.** NEAR eragilearen antzekoa da **NEAR/n** eragilearen funtzioa. Alde bakarra da zehaztutako bi terminoen arteko distantzia hitz-kopuru jakin batera (n) murrizten dela. Adibidez, **Etxe NEAR/11 Urdin** jarrita, emaitzetan, *etxe* eta *urdin* terminoen arteko distantzia 11 hitzetik beherakoa izango da.
- **FAR eragilea.** NEAR eragilearen kontrakoa da **FAR** eragilea. Hau da, emaitzetan, zehaztutako terminoen arteko distantzia 25 hitzetik beherakoa izan beharrean, 25 hitzetik gorakoa izango da.
- **FAR/n eragilea.** NEAR/n eragilearen kontrakoa da **FAR/n** eragilea. Hau da, emaitzetan, zehaztutako terminoen arteko distantzia hitz-kopuru jakin batetik (n) beherakoa izan beharrean, hitz-kopuru horretatik gorakoa izango da.

OHARRA

Komatxoan ("") eragilearekin lotutako bitxikeria

Komatxoak eragile posizionaltzat ere har daitezke; izan ere, neurri batean, bilaketa-tresnak behartzen ditu ordena eta distantzia jakin bat zehaztera bi terminoren artean edo esaldi oso bat aintzat hartzera.



Nabigatzailetan erabiltzeko beste eragile batzuk

Informazioa bilatzeko beste eragile komun batzuk ere badaude, bai eta nabigatzaile espezifiko batekin lotutako eragile espezifikoak, adibidez Google. Eragileok sinbolo edo hitz erreserbatu jakinak erabiltzen dituzte. Honako hauek dira sinbolo komunak erabiltzen dituzten eragileak, nabigatzaile ezberdinetan erabil daitezkeenak:

- **€ sinboloa.** Prezioen bilaketa mugatzeko aukera ematen du. Adibidez, *Apple €200* jarrita, emaitzetan, 200 euro inguruko balio duten Apple konpainiaren produktuak agertuko zaizkigu.
- **# sinboloa.** *Hashtag* edo etiketa jakin baten arabera emaitzak lortzen dira. Adibidez: *#kolorea*.
- **Fitxategiak bilatzea.** Hainbat fitxategi motatan gordetako informazioa bila daiteke, adibidez Acrobat Reader dokumentuak (**.pdf**), bideoak (**.mov**, **.mkv**, **.mp4**, **.wmv**, **.flv**), irudiak (**.jpeg**, **.png**), dokumentuak (**.doc**, **.docx**), kalkulu-orriak (**.xls**, **.xlsx**) eta aurkezpenak (**.ppt**, **.pps**, **.pptx**). Bilaketa egiteko, nahikoa da gako hitza jartzea eta, ondoren, luzapena. Adibidez: *Gabonak.pdf* edo *Gabonak.mp4*.
- **Eguraldiaren iragarpenak bilatzea.** Bilaketa egiteko hitz erreserbatua edo terminoa **weather**: da, jarraian nahi dugun lekua zehaztuta (**tiempo**: edo **eguraldia**: ere erabil daitezke). Adibidez, *weather: Donostia*, *tiempo: Donostia* edo *eguraldia: Donostia*.
- **Ordua bilatzea.** Bilaketa egiteko hitz erreserbatua edo terminoa **time**: da, jarraian nahi dugun lekua zehaztuta (**hora**: edo **ordua**: ere erabil daitezke). Adibidez, *time: Donostia*, *hora: Donostia* edo *ordua: Donostia* jarrita, Donostian zer ordu den jakingo dugu.
- **Kalkulagailu bat bilatzea.** **Calculator**, **calculadora** edo **kalkulagailua** hitz erreserbatua erabili behar da kalkulagailu bat bilatzeko. Ia beti Googleren kalkulagailua agertzen da zuzenean lehenik eta behin, baina lineako kalkulagailuak erabiltzeko aukera ematen duten hainbat webgune edo ataritako informazioa ere ematen da.
- **Irudi-bilatzailea.** Bilaketa egiteko hitz erreserbatua **image**: da, jarraian lokalizatu nahi dugun irudia zehaztuta (**imagen**: edo **irudiak**: ere erabil daitezke). Adibidez, *image: sukaldeak*, *imagen: sukaldeak* edo *irudiak: sukaldeak* jarrita, sukaldeak agertzen diren irudiak lortuko ditugu.



OHARRA

Hitz erreserbatuak

Funtzio jakin batera zuzenean sartzeko aukera ematen duten hitzak edo terminoak dira. **Ingelese**z, **gaztelania**z edo **euskaraz** erabil daitezke. Normalean, nabigatzaileek berdin ulertzen dituzte hiru hizkuntzak.



- **Bihurketa bat egitea.** Horretarako, **in/a** terminoak erabiltzen dira eta, horien artean, bi neurriak jarri. Adibidez: *60 in Fahrenheit; 60 Fahrenheit a Celsius.*
- **Egile jakin bat bilatzea.** Adibidez, **autor:** “Bernardo Atxaga” edo **egilea:** “Bernardo Atxaga” jarrita, Bernardo Atxaga idazlearekin lotutako emaitzak lortuko genituzke.

Bilaketa-irizpideak are gehiago zehazteko aukera ematen duen nabigatzaile ezagunenetakoa Googlearena da. Eragile aurreratuak erabiliz bilaketak egiteko aukera eskaintzen du Googlearen nabigatzaileak, honako hauek adibidez:

- **Web-orri baten barruan bilaketak egiteko eragileak:**
 - 1 | **intext:** web-orri bateko testu batean hitz jakin bat agertu behar duen emaitzak lokalizatzeko. Hau da, emaitzan, nahitaez, zehaztutako hitza agertu behar da. Adibidez, *intext: etxe jarrita, etxe hitza agertu behar da emaitza gisa emandako web-orri guztietan.*
 - 2 | **allintext:** intext eragilearen antzeko funtzioa du. Hitz bat lokalizatu beharrean, hori bai, hitz segida bat lokalizatzen du. Adibidez, *allintext: etxe urdin jarrita, etxe urdin hitz segida agertuko da emaitza gisa emandako web-orri guztietan.*
 - 3 | **intitle:** web-orriaren izenburuan edo dokumentu jakin batean hitz bat agertzen den emaitzak lokalizatzen ditu. Adibidez, *intitle: etxe jarrita, emaitza gisa emandako web-orri guztietan etxe hitza agertuko da izenburuan.*
 - 4 | **allintitle:** intitle eragilearen antzeko funtzioa du, baina hitz segida bati lotuta. Adibidez, *allintext: etxe urdin jarrita, emaitza gisa emandako web-orri guztietan etxe urdin hitz segida agertuko da izenburuan.*
- **Web-orriaren, webgunearen edo web-atariaren URL helbidean bilaketak egiteko eragileak:**
 - 1 | **inurl:** aukera ematen du URL helbidean hitz jakin bat duten web-orri, webgune edo web-atariak bakarrik aurkitzeko. Adibidez, *inurl: etxe jarrita, emaitza guztiek etxe hitza izango dute URL helbidean.*
 - 2 | **allinurl:** bilaketa mugatzeko aukera ematen du inurl eragileak bezala, baina zenbait hitz sartuz. Adibidez, *allinurl: Euskal Herriko etxeak jarrita, emaitza guztiek Euskal Herriko etxeak hitz segida izango dute URL helbidean.*

OHARRA

Bihurketa

Ingelesari egiten dio erreferentzia *in* terminoak, eta, gaztelaniari, berriz, *a* terminoak.





- **Bilaketak fitxategi-motaren arabera egiteko bilaketa-eragileak:**
 - 1 | **filetype:** informazioaren lokalizazioa hainbat formatutara mugatzeko aukera ematen du, adibidez bideoak (.mp4, .avi), dokumentuak (.doc, .docx), kalkulu-orriak (.xls, .xlsx), aurkezpenak (.ppt, .pps, .pptx), edo Acrobat Reader dokumentuak (.pdf). Adibidez, *filetype: pdf "Euskal Herriko errezetak"*.
- **Site eragilea:** termino bat helbide elektronikoa espezifiko batean aurkitzeko aukera ematen du. Adibidez: **site:** <http://www.udgvirtual.udg.mx/> www.lamoncloa.gob.es/Paginas/index.aspx www.lamoncloa.gob.es/Paginas/index.aspx. Bada, aztertutako kasuan, helbidearen amaieran educación jarri dugunez, gobernuko presidentearen eta ministro-kontseiluaren webgune ofizialean educación hitza duten orri guztiak agertuko zaizkigu.
- **Related eragilea:** zehaztutakoaren antzekoak diren web-orriak, webguneak edo web-atariak aurkitzeko aukera ematen du. Adibidez: **related:** facebook.com.
- **Link eragilea:** zehaztutako helbideari erreferentzia egiten dioten edo zehaztutako helbidera esteka bat duten web-orriak, webguneak edo web-atariak lokalizatzeko aukera ematen du. Adibidez: **link:** www.lamoncloa.gob.es/Paginas/index.aspx. Bada, aztertutako kasuan, edozein udal edo unibertsitateko web-orriak testuan edo erreferentzian www.lamoncloa.gob.es/Paginas/index.aspx jarrita badu, Googlek emaitzen artean sartuko du.
- **Kokapenaren arabera bilatzea.** Bilaketa kokapenaren arabera egiteko, nahikoa da posta-kodea sartzea. Adibidez: Liburutegia 20008 jarrita, Donostiako posta-kode horretan dauden liburutegiak agertuko zaizkigu.
- **Sinonimoen bidez bilatzea.** Bilaketa egiteko, ~ ikurra erabiltzen da. Adibidez: Sukaldaritzako errezetak ~programa. Bilaketa egitean, sukaldaritzako errezetei buruzko informazioa duten web-orriak, webguneak eta web-atariak lokalizatuko dira, eta "programa" hitzaren sinonimoekin erlazionatu. Horiek horrela, emaitzetan sukaldaritzako online errezetak edo telebistako sukaldaritzako saioak ager litezke adibidez.

Googleren nabigatzailean badira bilaketa mugatzen duten hitz erreserbatuak edo sinboloak ere. Adibidez:

1 | **flights** hitza jarrita, Google Hegaldiak atariari lotutako hegaldiak bilatzeko zerbitzuko emaitzak agertzen dira.

OHARRA

Fitxategi motaren arabera bilaketak egitearekin lotutako bitxikeria

Nabigatzaile guztietan bila daitezke fitxategiak. Bada, Googleren kasuan, **filetype** eragilea erabil daiteke, edo gako hitza eta ondoren fitxategi mota jarri.

OHARRA

Webguneekin eta web-atariekin lotutako gogorazpena

Web-atariak eta webguneak hainbat web-orri osatuta daude. Beraz, site: eragilea jarrita, emaitzetan zehaztutako hitza duten web-atariako edo webguneako web-orri guztiak agertuko dira.



2| Bi puntu (..) jarrita, bi zenbaki-tarteren barruan egiten da bilaketa. Adibidez, *ordenagailua €200..€800* jarrita, tarte horretako prezioa duten ordenagailuen salerosketarekin lotutako informazioa lortuko da.

Erabiltzen diren eragile eta hitz erreserbatuak edozein direla ere, gako hitzetan eta eragiletan oinarritutako bilaketa-estrategiek ekintza-multzo bat dute oinarri, bilaketen eraginkortasuna ahalbidetzen dutenak. Honako hauek dira zehazki:

- Interneten egindako informazioa bilaketaren helburua zehaztea.
- Gako hitzak behar bezala hautatzea.
- Gako hitzak erlazionatzea.
- Erabili beharreko bilaketa-estrategia zehaztea, adibidez bilaketa eragileetan edo gako hitzetan oinarrituta egitea. Erabakia hartzeko, aztertu behar da erabilitako bilatzaileek, metabilatzaileek eta bilaketa-tresnek eskaintzen dituzten oinarritzko iragazkiak nahikoa diren, edo eragileak eta hitz erreserbatuak sartzera beharrezkoa den.
- Beharrezkoa bada, bilaketa egiteko erabili beharreko eragileak, sinboloak edo hitz erreserbatuak identifikatzea.
- Bilaketa-katea diseinatzea, eragileak, sinboloak edo gako-hitzak erabilia.
- Lortutako informazioak ezarritako bilaketa-helburua betetzen duen egiaztatzea.
- Lortutako informazioaren egiazkotasuna, kalitatea eta aniztasuna egiaztatzea.
- Bilaketa-helburua betetzea, adibidez ordainketa bat egitea, harpidetza bat egitea edo informazio bat deskargatzea.

Eragileetan oinarritutako bilaketa-estrategiak erabilia, emaitzak zehaztasun eta kalitate handiagoz lokalizatzen dira gako hitzetan oinarritutako bilaketa-estrategiak erabilia baino. Eragileek bilaketaren emaitzak zabaltzeko, definitzeko eta mugatzeko aukera ematen dute.

Bilaketa-estrategiak arrakastaz diseinatzeko gomendioak

Eragile logikoak eta boolearrak, trunkamenduzko eragileak, eta eragile posizionalak edo gertutasunekoak oinarri hartuta diseinatzeko bilaketa-estrategiak, hurrengo urratsak hartu behar dira kontuan:





- **Parametroak zehaztea** Adibidez, hasierako gaia “COVID-19aren sintomak hurrengan” baldin bada, berehala konturatuko zara gai oso zabala dela, besteak beste, adin, herrialde eta COVID-19aren aldaera asko daudelako. Horrenbestez, parametro hauek aplikatu daitezke adibidez:
 - 1| **Adina:** jaioberriak, haur hezkuntza, nerabezaroa edo adin tarte jakin bat.
 - 2| **Herrialdea:** Euskal Herrira mugatu daiteke bilaketa, edo herrialdea ez mugatzea erabaki.
 - 3| **Kronologia:** 2021, 2022 edo 2023, unean uneko birusaren garapen ebolutiboa aintzat hartuta.Horiek horrela, parametroak aplikatuta, zure bilaketa honako datu hauetara muga daiteke adibidez: Adina: 10 urte; Herrialdea: Euskal Herria; eta Urtea: 2022. Parametro horiek aplikatuta, bilaketaren gaia nabarmen zehaztuko litzateke, honela geratuz: **“COVID-19aren sintomak 10 urteko Euskal Herriko haurretan”**.
- **Funtsezko kontzeptuak zehaztea** Kontuan hartuta bilaketaren gaia **“COVID-19aren sintomak 10 urteko Euskal Herriko haurretan”** dela, funtsezko kontzeptuak honako hauek izango lirateke: sintomak, COVID-19a, Euskal Herriko haurrak eta 10 urte.
- **Balizko sinonimoak zehaztea** Adibidez, koronabirusa eta SARS-CoV-2 bezalako terminoak estuki lotuta daude COVID-19 gaitzarekin, zehazki sinonimoak izan ala ez.
- **Kontzeptuen arteko erlazioak zehaztea** Urrats honetan, bilaketa egiteko behar diren eragileak zehazten dira. Adibidez:
 - 1| **Eragile boolearrak.** Oinarritzko kontzeptuak lotzen dituzte, eta honela gera daitezke adibidez: **COVID-19 sintomak + Euskal Herria+ 10 urte** edo **COVID-19 sintomak AND haurrak Euskal Herrian**.
 - 2| **Trunkamenduzko eragileak eta trunkamenduzko eragileen eta eragile boolearren arteko konbinazioa.** Adibidez: Kontuan hartuta Covid 19 eta COVID-19 terminoek gaitz berari egiten diotela erreferentzia,* eragilea erabil daiteke, eta antzekoa egin daiteke haur terminoarekin ere. Horrenbestez, horrela geratuko litzateke bilaketa adibidez: **sintomak covid* + haurra* Euskal Herrian**.



3 | Eragile posizionalak eta eragile posizionalen konbinazioa eragile boolearrekin eta trunkamenduzko eragileekin. Adibidez, herrialdearen izenak ez du nahitaez agertu behar web-orri bateko testuan, edo ez du zertan kontzeptu nagusitik gertu egon. Beraz, SAME eragilea erabiltzeko aukera egokia izan liteke, horrela geratuz bilaketa: ***sintomak covid* + haurra* SAME Euskal Herria.***

Garrantzitsua da gogoratzea eragileek informazioa bilatzeko aukera ematen dutela, baina ezinbestekoa dela eragileen esanahia eta erabilera ondo ezagutzea. Gainera, zenbait operadore espezifiko daude, adibidez **AND** eta baliokidea duen **+** ikurra, eta **OR** eta baliokidea duen **-** ikurra. Kontuan hartu beharrekoa da ere parentesiak bi eragile baino gehiago daudenean edo soilik **OR** eragilea dagoenean erabiltzen direla.

Normalean, zenbait eragile erabil daitezke bilaketa-estrategia berean, baina terminoen kasuan eragile boolearrak eta trunkamenduzkoak erlazionatzea gomendatzen da, edo eragile boolearrak posizionalekin. Izan ere, trunkamenduzko eragileek gehiegi mugatzen dute bilaketa termino batera (* izartxo erabiltzea), karaktere batera (? sinboloa erabiltzea) edo esaldi zehatz batera (" " komatxoak erabiltzea).

i Informazio gehiago

Eragileen inguruan gehiago jakiteko, honako txosten hau kontsulta daiteke: e.digitall.org.es/busqueda-informacion-web


Googleren eragileen inguruan gehiago jakiteko, Googleren laguntza-zerbitzua kontsulta daiteke: e.digitall.org.es/busquedas-google

⚠ ADI

Saihestu beharreko ohiko akatsak

Eragileetan oinarritutako informazioa bilatzeko, askotariko eragileak eta hitz erreserbatuak erabil daitezke. Honako hauek dira egiten diren akatsik ohikoenak:

- 1 |** Gako hitzak gaizki aukeratzea.
- 2 |** Eragileak gaizki erabiltzea.
- 3 |** Bilaketa-kate oso luzea eta konplexuak erabiltzea, eragile askorekin.






DigitAll

Informazioa eta datuak
bilatzea eta kudeatzea

1.2

**DATUAK,
INFORMAZIOA ETA
EDUKI DIGITALAK
EBALUATZEA**





Informazioa eta datuak
bilatzea eta kudeatzea

B1 maila 1.2 Datuak, informazioa eta
eduki digitalak ebaluatzea

Joera jakineko informazioaren sorrera eta ondorioak





Joera jakineko informazioaren sorrera eta ondorioak

Joera jakineko informazioaren erabilerarekin lotutako bideoan, informazioaren tratamenduan objektibotasunik eza eragin dezaketen arrazoiak azaldu ziren. Bada, dokumentu honetan, zenbait adibide erabiliko dira egoerok hobeto identifikatu ahal izateko.



JOERA JAKINEKO INFORMAZIOA

Bideo honetan, joera jakineko informazioaren auzia jorratzen da, zer dela eta agertzen den eta zer ondorio dituen azalduz.

e.digitall.org.es/A1C12B1V02



Wikipedia (e.digitall.org.es/sesgo) eduki askeko entziklopediaren arabera, joera jakineko informazioaren fenomenoak komunikabideen jardunarekin lotuta dago, eta kazetariak eta ekoizleak jorratzen dituzten albisteen eta gertakarien aukeraketarekin lotuta dago, bai eta albisteen berri emateko moduarekin ere.

Joera jakineko informazioak jorratzearekin komunikabideek gizartean duten eragina baliatu nahi da herritarren pentsamenduan xede jakin batekin eragiteko, askotarikoa izan daitekeena, adibidez:

- Herritarrek ideologia politiko jakin bat babestea, edo auzi baten alderdi jakin bat babestea.
- Herritarrek produktu jakin bat kontsumitzea, edo leku jakin batera bidaiatzea.
- Herritarrek joera jakineko informazioak zabaltzen dituzten komunikabideekin konpromisoa eta interakzioa indartzea.

Nola ezagutu joera jakineko informazioa

Gauza jakina da komunikabide nagusiek ildo editorial jakinak izaten dituztela, eta, ondorioz, joera jakineko informazioak lantzen amaitu ohi dutela. Hori horrela, komunikabideek erabilitako teknikak ezagutzeak praktikok identifikatzea erraztuko du, betiere irakurlea informazioa behar besteko espiritu kritikoarekin hurbiltzen bada. Jarraian, aipatu dugun bideoan joera jakineko informazio lanketarekin lotuta deskribatzen diren zenbait jokabide jaso ditugu:



Joera jakineko agenda informatiboa

Zer berri eman hautatzeko orduan, zer eduki jorratu erabakitzerakoan, komunikabide batek arrazoi objektiboak beharrezkoak dira. Adibidez, 1. irudian, 2023ko urtarrilaren 30ean argitaratutako bi albiste agertzen dira. Bi komunikabide ezberdinek kaleratutako albisteak dira, eta bietako bakoitzak bi albiste horietako bakarra jorratu zuen, bestea alboratuz. Horrela eginda, lortzen da, adibidez, iritzi publikoak kolektibo jakin batekin lortutako arazoak aintzat hartzea (immigranteak), edo beste kolektibo bateko kideen sufrimendua ahaztea (terrorismoaren biktimak). Bi gaiak garrantzitsuak badira, komunikabide guztietan jaso beharko lirateke modu berdintsuan, ez batzuetan bai eta besteetan ez.

Aniversario. Historia de ¡Basta ya!, la primera plataforma ciudadana que se enfrentó al acoso en el País Vasco: "En las manifas del mundo abertzale se escuchaba 'ETA, mátalos'"

REBECA YANKE | Madrid

Arranca el desalojo en el asentamiento El Walili, en Níjar: "No sabemos dónde ir"

NACHO SANCHEZ | Níjar (Almería)

El Ayuntamiento del municipio almeriense pone a disposición de los migrantes un centro de emergencia habilitado en una nave industrial

— El derribo del poblado chabolista, en imágenes

1. irudia. Bistakoa da albisteei ez zaiela garrantzi bera ematen komunikabide batean edo bestean.

Joera jakineko hizkuntza-erabilera

Gertakari bera deskribatzeko hitz batzuk edo beste batzuk erabiltzeak ondorio oso ezberdinak eragin ditzake herritarrengan. Albiste berarekin lotutako bi titular alderatzen dira 2. irudian jasotako adibidean.

Gobierno. El PSOE ningunea a Irene Montero y presentará una proposición de ley para "corregir" el 'sí es sí' de forma "inmediata"

ALVARO CADIZAL | MARTA DELVES

Editorial. Montero no puede seguir en el cargo

El PSOE reformará la 'ley del solo sí es sí' aunque no haya pacto con Podemos

ISABEL VALDÉS | Madrid

El Gobierno negocia cambios en la norma sin tocar el consentimiento, pese a la negativa de Podemos a las modificaciones

2. irudia. Albiste bera joratzeko oso hitz ezberdinak erabiltzea oso ohikoa da; adibidean, kasu batean "corregir" dena bestean "reformar" da. Era berean, "ningunea" bezalako termino baten erabilera nabarmentzeko modukoa da.



Ez da inolaz ere bera desakordio batez hitz egitean **ningunear** aditza erabiltzea edo **“aunque no haya pacto”** esatea. Lehendabiziko kasuan, alde batek bestea umiliatzen duela nabarmentzen da. Are, umiliazio hori pertsonalizatu ere egiten da. Gainera, ezkerreko titularraren kasuan, legea zuzenduko dela nabarmentzen da, eta horrek konnotazio negatiboagoa du legea erreformatuko dela esatea baino.

Joera jakineko informazio-iturriak

Gatazka batean, inplikaturako alderdietako baten iritzia bakarrik aurkeztea ohikoa da, joera jakineko informazio-iturriak soilik erabiliz. Etxebizitza lege berriari buruzko bi albiste jasotzen dira 3. irudian. Ezkerreko albistean maizterren iritzia soilik jasotzen da, eta, eskuinekoan, jabeena soilik.

Inquilinos sometidos a 'trampas' para saltarse el límite del 2% al alquiler: "Sé que la ley me ampara, pero no voy a entrar en conflicto con mi casero"

Los propietarios advierten de una crisis en el alquiler: topar la revisión destruye oferta y subirá los precios

Particulares y grandes inquilinos expresan cierto malestar hacia la decisión del Gobierno de prorrogar el límite a las revisiones de los contratos hasta el 2%.

3. irudia. Albiste batean soilik inplikaturako alderdietako baten iritzia ematearen bi adibide.

Interes ekonomikoek eragindako joera jakineko informazioa

Hurrengo adibidea, 4. irudian jasotzen dena, aurreko adibideak bezala, etxebizitzaren ingurukoa da. Etxebizitzaren auzia konpondu beharreko arazotzat jotzen du berriak. Laburpena irakurtzean, informazioaren jatorria beren buruak gaian aditutzat jotzen duten enpresetan dagoela egiaztatu daiteke; are, arazoaren irtenbidea dutela ere badiote. Aldiz, errealitatea oso bestelakoa da: albiste gisa aurkeztu arren, ordaindutako iragarki bat da benetan testua.

“España está aún a tiempo de resolver el problema del alquiler”

Djordy Seelmann, director general de HousingAnywhere, y Carlos Amigo, Country Lead de la plataforma en España, analizan la situación del sector del alquiler, centrándose en su target de estudiantes universitarios y jóvenes profesionales

4. irudia. Albiste arrunt baten aurrean gaudela pentsa dezakegun arren, ordaindutako iragarki bat da benetan adibideko testua.



Sentsazionalismoak eragindako joera jakineko informazioa

Batzuetan, informazioek jendearen emozioetara jotzen dute zuzenean, irakurle gehiago lortzea helburu hartuta. Kasuotan, hizkuntzaren erabilera funtsezko osagaia da, hori bai, sentsazionalismoa detektatzeko gakoa honakoa izan ohi da: titularra atzean utzi eta testua irakurtzen hastean, ez duelako inolako balio informatiborik konturatuko gara. 5. irudian agertzen diren adibideak clickbait huts jo daitezke, hau da, diru sarrerak handitzeko xedez erabiltzaileek klik egitea beste helbururik ez duten albisteak, amu hutsak.

🌟 **Los muertos de Berlín que no tienen quien los entierre**

El timo de los mercadillos: un agujero de miles de euros, ferias fantasma y amenazas

5. irudia. Sentsazionalismoa oso ohikoa bilakatu da egun: hizkuntza kezka edo alarma sortzeko erabiltzen da inolako oinarririk gabe, irakurlea albistean sartzea helburu bakartzat hartuta.

Joera jakineko informazioak zabaltzearen ondorioak

Informazioa aurkezteko eta tratatzeko orduan azaldu ditugun jokabide desegokiok izatearen ondorio nagusia iritzi publikoaren manipulazioa da, ondorio politiko, ekonomiko eta sozialak izan ditzakeen manipulazioa.

Ondorio sozial eta pertsonalekin lotuta, 6. irudian bi adibide ageri dira. Eskuinean, titularrak kolektibo jakin bati egiten dio eraso, gutxiengo baten ekintzak orokortuz. Ezkerrean, titularrak geroago errugabe zela frogatu zen pertsona bat kriminalizatzen du. Ondorio larriak dituen jokabidea da, albiste bat argitaratzen lehenak izateko nahiaren ondorio, informazio bat egiaztatu gabe eta errugabetasun-presuntzioa urratuz argitaratzea dakarrena.



6. irudia. Joera jakineko informazioak argitaratzeak ondorio larriak izan ditzake, besteak beste, kolektibo baten aurkako alarma soziala eragitea edo errugabe bat kriminalizatzea.

Nola borrokatu joera jakineko informazioen aurka

Dokumentu honetan, joera jakineko informazioak eta hizkuntzaren erabilera sentsazionalista identifikatzen laguntzen duten zenbait arrasto azaldu ditugu. Hala ere, desinformazioari aurre egiteko gomendio onena argia da: informazioaren jatorrira jo eta iturri bat baino gehiago kontsultatu.



- Albiste bera komunikabide batean baino gehiagotan kontsultatu, bereziki komenigarria izanez joera politiko edo editorial kontraerriko medioak kontsultatzea.
- Historia batean inplikaturako eragile guztien informazioa lortu.
- Datu objektiboetan jarri arreta, informazioa eta iritzia bereizita.
- Egiaztatu ea eduki jakin bat benetan informazioa den edo publizitatea den, batzuetan esplizituki ez onartu arren, 7. Irudiko adibidean bezala.

**Bodegas Granbazán, destino
ideal en plenas Rías Baixas
para los amantes del
enoturismo**

DIARIO DE PONTEVEDRA

7. irudia. Ohikoa da albiste gisa azaldu arren eta publizitate gisa identifikatu ez, informazio bat ordaindutakoa izatea.

Prest izan behar da informazioari norberaren iritzia berresten ez duen ikuspegitik ere heltzeko.

Horrek esan nahi du informazioa lortzeko denbora hartu behar dela, bai eta aurreiritziak gainditzeko prest izan behar dela ere. Urratsok emateko prest egon ezean, zenbait informazio zalantzarri partekatzeko orduan kritikoa izatea da gutxienezkoa.

i Informazio gehiago

Espainiako Kazetari Elkartearen Federazioaren (FAPE) gomendioak. fape.es/recomendaciones-periodisticas

Kazetari baten objektibotasunari eragiten dioten sei joera desagoki. GABO fundazioa e.digital.org.es/sesgos-gabo

UNESCOren kode deontologikoa. Periodistas en español.com. e.digital.org.es/periodistas





Informazioa eta datuak
bilatzea eta kudeatzea

B1 maila 1.2 Datuak, informazioa eta eduki
digitalak ebaluatzea

Bilaketa baten emaitzen maneiu aurreratua





Bilaketa baten emaitzen maneiu aurreratua

Webeko bilaketa bat iragazteko aukera aurreratuak

Hainbat bideotan formatu desberdinetako edukien bilatzaileekin lan egin dugu. Bada, dokumentu honetan, webean eta sare sozialetan bilaketa aurreratuak iragazkiak erabiliz egiteko moduari buruzko informazio gehiago emango dugu. Lehen atal hau web inguruneari buruzkoa da, nahiz eta iragazki asko komunak dira hainbat informazio-iturritan.



BILAKETA BATEN IRAGAZKETA AURRERATUA

Testuaren, irudiaren, bideoaren eta audioaren iragazketa aurreratua. Lehen emaitzen egiazkotasuna zehaztea. Informazioa antolatzeke zerbitzuak identifikatzea: markatzaileak, RSS/ATOM iturriak.

e.digitall.org.es/A1C12B1V03



Bilaketa aurreratuko irizpideak

Web-bilatzaileek eta bideoan, irudian eta datu-baseetan espezializatutako bilatzaileek bilaketa aurreratuko interfazeak dituzte, eragile boolearren erabilera errazten dutenak, edo **“Eragileetan oinarritutako bilaketa-estrategiak”** dokumentuan jasotako beste bilaketa-aukera batzuk. Adibidez, Googlen, esaldi sinple batekin bilaketa bat egin ondoren, bilaketa are gehiago mugatu daiteke, **bilaketa aurreratuko** orriko iragazkiak eta bitartekoak erabiliz. Bideoko argibideei jarraituz, bilaketa-barraren eskuinaldean agertzen den konfigurazio-errulearen bidez sartzan da bilaketa aurreratura. Bilaketa bat egin nahi bada *el sesgo de género asociado a la inteligencia artificial* esaldia gai hartuta, interfaze aurreratuak (1. irudia) eduki mota, argitalpen-data, hizkuntza edo aurkitu beharreko domeinu mota mugatzeko aukera ematen du, gako hitzak idatzi beharrik gabe egin ere. Gainera, interfazeak bilaketa aurreratu egiteko jarraibideak ematen ditu eskuinean, eta, behealdean, berriz, auziari buruzko tutorial zabalagoetarako sarbidea eskaintzen du.



ERAGILEETAN OINARRITUTAKO BILAKETA-ESTRATEGIAK

Erreferentziatzko dokumentua:
A1C11B1D01



1. irudian ikusten den bezala, bilaketa aurreratuan sesgo eta género hitzek agertu beharra dutela zehazten da. Ondoren *inteligencia artificial* konbinazioa gehitzen da, komatxoak erabili beharrik gabe. Denborazko iragazki bat ere aplikatu da, eta emaitza garrantzitsuak bilatzeko, terminoak testuan agertzea bilatzen da.

Búsqueda avanzada

Buscar páginas con...

todas estas palabras:	<input type="text" value="sesgo género"/>	Escribe las palabras importantes: <i>sesgo género género</i>
esta palabra o frase exacta:	<input type="text" value="inteligencia artificial"/>	Escribe las palabras exactas entre comillas: <i>"inteligencia artificial"</i>
cualquiera de estas palabras:	<input type="text"/>	Escribe OR entre todas las palabras que quieras: <i>sesgo OR género</i>
ninguna de estas palabras:	<input type="text"/>	Añade un signo menos delante de las palabras que no quieras que aparezcan: <i>-sesgo, -"Jack Black"</i>
números desde el:	<input type="text"/> hasta <input type="text"/>	Escribe dos puntos seguidos entre los números y añade una unidad de medida: <i>10..35 kg, 300..500 euros, 2010..2011</i>

Haz lo siguiente en el cuadro de búsqueda

A continuación, limitar los resultados por...

idioma:	<input type="text" value="cualquier idioma"/>	Busca páginas en el idioma que selecciones.
región:	<input type="text" value="cualquier región"/>	Busca páginas publicadas en una región determinada.
última actualización:	<input type="text" value="en el último mes"/>	Busca páginas actualizadas en el periodo de tiempo especificado.
sitio o dominio:	<input type="text" value=".org"/>	Busca un sitio (como <i>wikipedia.org</i>) o limita los resultados a un dominio como, por ejemplo, <i>.edu</i> , <i>.org</i> o <i>.gov</i> .
los términos que aparecen:	<input type="text" value="en el texto de la página"/>	Busca términos en toda la página, en el título de la página o en la dirección web, o enlaces a la página que estás buscando.
tipo de archivo:	<input type="text" value="cualquier formato"/>	Busca páginas en el formato que prefieras.
derechos de uso:	<input type="text" value="sin filtrar por licencia"/>	Busca páginas que puedas utilizar libremente.

[Búsqueda avanzada](#)

También puedes...

- [Buscar páginas similares a una URL](#)
- [Buscar páginas visitadas](#)
- [Usar operadores en el cuadro de búsqueda](#)
- [Personalizar configuración de búsqueda](#)

1. irudia. Googleren bilaketa aurreratuko interfazea.

Eduki propioak sortzeko edukiak bilatzea

Interfazeetan agertzen den beste bilaketa-iragazkietako bat erabilera-eskubideena da. Iragazki funtsezkoa da beste material batzuk sortzeko edukiak bilatzeko orduan.



Izan ere, edukiak sortzean, jabetza intelektualari buruzko legeak errespetatu behar dira. Material bat eskuratzeko aukera izate hutsak ez du esan nahi material hori bere edukietan sartu nahi duen edonoren esku dagoela.

Bilatzaile nagusietan, irudiak edo bideoak bezalako ikus-entzunezko materiala erabiltzen denean, aukera bat dago jakiteko ea posible den edukiok beste material batzuetan sartzea, bai eta zer baldintzatan egin behar den ere. **Bing** eta **DuckDuckGo** bilatzaileetan *lizentzia* aukera da eta **Google** bilatzailean, *tresnak/erabilera-eskubideak*. Lehenengo kasuan, argi eta garbi azaltzen da materialarekin zer egin daitekeen eta zer ez, eta, bigarrenean, berriz, lizentziei buruzko informazio gehiago eduki behar da.

Erabilera-eskubide jakinak dituzten ikus-entzunezko materialen bilaketan espezializatutako gordailuak ere badaude, bai erabilira librekoak bai harpidetza bidezkoak.

Emaitzen iragaztea eta analisia sare sozialetan

Web-bilatzaileek ez dituzte sare sozialei dagozkien emaitzak ematen, baina, aurreko atalean azaldutako sinboloen erabilera baliatuz, bilaketak sare sozial jakin batean egitea zehaztu daiteke, sare sozialaren izenaren aurrean @ ikurra jarrita, @ **facebook** adibidez.

“**Emaitzen analisia sare sozialetan**” bideoan erakutsi bezala, sare sozialetan informazioa lor daiteke pertsonei buruz, pertsonen adiskide sareei buruz, pertsonak argitaratutako edukiei buruz eta edukion inpaktuari buruz. Atal honetan, sare sozialetatik informazioa nola lortu eta informazio hori nola aztertu azalduko da, bai sare sozialek dituzten bilaketa-tresnak erabiliz, bai bilaketak sare sozial batean baino gehiagotan aldi berean egitea ahalbidetzen duten beste aplikazio batzuk erabiliz.



EMAITZEN ANALISIA SARE SOZIALETAN

Sare sozialetako bilaketen emaitzak aztertzea eta ebaluatzea. Sare sozialetako jarduera-fluxuen oinarritzko azterketa.

e.digitall.org.es/A1C12B1V05





Sare sozialetan bilaketak egiteko bilaketa-tresnak


Sare sozialen barruan bilaketak egitean ere, **web-bilatzaileen antzeko iragazkiak aplika daitezke**. Era berean, sare sozial bakoitzeko iragazki espezifikoak ere egon badaude. Adibidez:

- Facebook sare sozialean, bilaketak pertsonetara, tokietara edo taldeetara mugatu daiteke. Izan ere, Facebooken aipatu erabiltzaile motak sor daitezke (1. irudia).

Bilaketa-barran eragileak erabil daitezke. Hala, lehen aztertutako adimen artifizialeko genero-joerarekin lotutako bilaketa egiteko (*el sesgo de género asociado a la inteligencia artificial*), honako hau idatz daiteke: **Sesgo and "inteligencia artificial" and género**. Horrela eginda, sare sozialak hainbat emaitza eskainiko dizkigu, ondoren guk 1. irudiaren ezker aldean agertzen diren aukerak erabiliz iragaz ditzakegunak.

"Guztiak" (*Todo*) aukera hautatzen bada, hainbat formatutako argitalpenak eskuratuko ditugu, bai eta hainbat pertsonarenak ere; are, bilatzen ari garen gaian espezializatutako orrialde eta taldeak ere eskuratuko ditugu, oso baliagarria izan daitekeena.

2. irudian (eskuinean) agertzen diren aukeretako batzuek, iragazketa are zehatzagoak egiteko aukera ematen dute, 3. irudian (behean) bideoen bilaketekin ikusten den bezala. Emaitzak nola ordenatu ere zehaztu daiteke. Bilaketak lehenik eta behin zehaztutako bilaketa terminoekin lotura handiena duten edukiak erakustea nahi badugu, **ordenar por relevancia** aukera hautatzea komeni da beti.



3. irudia. Facebookeko bilaketa-iragazkien aukerak. Adibidean, bideoekin lotutako iragazkiaren aukerak ikus daitezke.



2. irudia. Facebookeko bilaketa-iragazkiak.



Beste sare sozial batzuetako bilaketa-elementu espezifikoak:

- **X** sare sozialean, bilaketa aurreratua pertsonen edo hurbiltasun geografikoaren arabera iragazteko aukera ematen du (ikus 4. irudia). Bilaketa aurreratua hautatuz gero, eragileetan oinarritutako bilaketa-estrategiak erabiltzeaz gain, txio jakin batek jasotako elkarrekintza-kopuruaren arabera ere egin daiteke iragazketa. Nabigazioaren segurtasuna babesteko asmoz, X sare sozialak estekak dituzten txioak saihesteko aukera ere eskaintzen du.
- **Instagram** sare sozialean, bilaketak bilaketa-koadroan idatzitakoan eta aurretiko jardueran oinarritzen dira, eta interakzio-maila handiena duten emaitzak gailentzen dira.

Sare sozialek, gainera, bideoan deskribatutako jarduerametriketan balio handiena lortu duten edukiak zuzenean eskuratzeko aukera ematen dute, adibidez irismen edo interakzio handienekoak. Horretarako, TikTok sare sozialak **Tendencias** (Joerak) atala du, eta, Instagramek, **Explorar** (Arakatu). Ez dugu ahaztu behar edukiokin dugun elkarreraginak informazioa ematen diola sare sozialari, ondoren antzeko edukiak aurkezteko erabiliko duena algoritmoak.

Sare sozialetan espezializatutako bilatzaileak

Informazioa hainbat sare sozialetan lokalizatu nahi bada, aldi berean plataforma desberdinetan bilatzeko aukera ematen duten web-orriak daude. Bilaketaren atzean bi helburu izan daitezke.

- Gai bati buruzko informazioa azkar-azkar bilatzea.
- Pertsona edo marka baten berezko informazioa ezagutzea eta kudeatzea.

Lehenengo helburua badugu, **Social Searcher** webguneak (social-searcher.com) eduki jakin bati buruzko gako hitzen, erabiltzaileen edo joeren aipamenak bilatzeko aukera ematen du. Hizkuntza- eta plataforma-iragazkiak ditu. Sare sozial nagusiak sartuta daude. Enpresa edo marka baten gaineko informazioa kontrolatzeko, **Talwalker** ([e.digitall.org.es/talwalker](https://e.digitall.org/es/talwalker)) edo **Mention** (mention.com) erabil daiteke. Plataformok izena ematea eskatzen dute eta ordainketa-funtzioak dituzte. Azken batean, marketin digitaleko tresnatzat har daitezke.



4. irudia. X sare sozialeko bilaketa-iragazkiak. **Bilaketa aurreratua** aukerak eragileak erabiltzea ahalbidetzen du.



Horrelako webguneak erabiltzean, zer bilaketa-iturri dituzten ezagutu behar da aldez aurretik, informazio-baliorik gabeko foroetara sartzea saihesteko, bai eta, batzuetan, gutxieneko jokabide-arauak errespetatzen ez dituzten gunetara ere.

Informazio gehiago

Webean egindako bilaketak mugatzea. e.digitall.org.es/laburtzea

Nola egin behar dut bilaketa bat Facebook sare sozialean? e.digitall.org.es/busqueda-facebook

Instagram sare sozialeko bilaketek nola funtzionatzen duten buruzko analisi zehatza. e.digitall.org.es/busqueda-instagram

Txio zahar bat edo txio jakin bat aurkitu nahi duzu? Bila ezazu justu bilatzen ari zaren hori. e.digitall.org.es/busqueda-twitter





Informazioa eta datuak
bilatzea eta kudeatzea

B1 maila 1.2 Datuak, informazioa eta
eduki digitalak ebaluatzea

Adimen artifiziala eta informazioa





Adimen artifiziala eta informazioa

Adimen artifizialaren printzipioak

Adimen artifiziala hiru osagai nagusitan oinarritzen da: datuak, algoritmoak eta prozesaketa-gaitasuna.

- **Datuak.** Adimen artifizialaren lehengai dira. Ikaste automatikoko algoritmoak entrenatzeko eta adimen artifizialeko sistemen errendimendua hobetzeko erabiltzen dira. Datu-multzoak zenbat eta handiagoak izan, orduan eta hobe izango da adimen artifizialaren zehaztasuna eta errendimendua.
- **Algoritmoak.** Datuak ikasteko eta erabakiak hartzeko erabiltzen dituzten prozedura konputazionalak dira. Ikaste automatikoko algoritmoak gai dira denborarekin errendimendua hobetzeko, datu gehiago eman ahala.



Informazio gehiago

Algoritmoak zer diren hobeto ulertzeko, algoritmo terminoaren definizioa eta algoritmoen adierazpideak, analisia eta adibideak kontsulta daitezke esteka honetan:

es.wikipedia.org/wiki/Algoritmo

- **Prozesaketa-gaitasuna.** Adimen artifizialak prozesaketa-gaitasun handia eskatzen du datuak aztertzeko eta ikaste automatikoko algoritmoak gauzatzeko. Hodeiaren teknologiaren agerpenak eta prozesaketa grafikoko unitateen (GPU) erabilerak nabarmen hobetu dute azken urteotan adimen artifizialaren prozesaketa-gaitasuna.

Informazio gehiago

Ikaste automatikoa (*machine learning* ingelesez) zer den hobeto ezagutzeko, zerbitzuok eskaintzen dituzten enpresa hornitzaile nagusietako batzuetara jo daiteke, adibidez **Amazon** (e.digitall.org.es/machine-learning) eta **Google** (e.digitall.org.es/aprendizaje-automatico).



Adimen artifizialen eragina komunikabideetan

Adimen artifiziala informazio-baliabideak kudeatzeko eta erabiltzeko modua eraldatzen ari da. Adimen artifiziala lagungarria izan daiteke erakundeentzako datu-kopuru handiak prozesatzeko, ereduak eta joerak identifikatzeko, eta erabaki informatuagoak eta zehatzagoak hartzeko.

Adimen artifizialak informazioa bilatzeko eta berreskuratzeko modua ere hobetu dezake. Adimen artifizialeko sistemek erabiltzaileen bilaketa-ereduak azter ditzakete, eta emaitza zehatzagoak eta adierazgarriagoak eman. Gainera, adimen artifiziala lagungarria izan daiteke erakundeentzat egituratu gabeko informazio-kopuru handiak identifikatzeko eta aztertzeko, hala nola testuak, irudiak eta bideoak.

Hala ere, adimen artifizialak erronka handiak ere planteatzen ditu informazio-baliabideekin lotuta. Adimen artifizialak, modu desegokian erabiltzen bada, joera jakinak eta akatsak sar ditzake erabaki hartzeetan, baita pribatutasun- eta segurtasun-arazoak ere. Beraz, garrantzitsua da erakundeek politika eta jardunbide egokiak ezartzea adimen artifiziala modu arduratsuan eta etikoan erabiltzen dela bermatzeko.

OHARRA

Espainiako Gobernuak Adimen Artifizialaren Aholku Batzordea eratu du, adimen artifizialaren erabilera segurua eta etikoa bermatzeko hartu beharreko neurriei buruzko aholkularitza eta gomendio independenteak emateko. Informazioa honako esteka honetan kontsulta daiteke: e.digital.org.es/consejo-asesor-ia

Informazio gehiago

Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionala garatu da, Europako politikekin bat. Hemen kontsulta daiteke aipatu estrategia garatzen duen txostena: e.digital.org.es/estrategia-nacional-ia

Deepfake teknikarekin edukiak sortzea

Deepfake teknikarekin edukiak sortzeko, trebetasun tekniko aurreratuak izan behar dira; are, denbora eta ahalegin asko behar dira emaitza onak lortzeko.

Deepfake teknikarekin edukiak sortzeko, urrats hauek jarraitu behar dira:



ADIMEN ARTIFIZIALA ETA INFORMAZIO- BALIABIDEAK

Informazio-baliabideetan adimen artifiziala erabiltzeari buruzko hastapenak. Zer dago deepfake terminoaren atzean? Adibideak.

*Erreferentziazko bideoa:
A1C12B1V06*

ADI

Adimen artifiziala oker erabiltzeak kalte egin diezaioke pertsonen ospeari, eta informazio faltsua zabaltzeko eta pertsonak engainatzeko ere erabil daiteke. Horrenbestez, adimen artifiziala arduraz eta etikoki erabiltzea beharrezkoa dela nabarmendu behar da.



1 | Entrenamendu-datuak biltzea. Deepfake teknika erabilia eduki bat sortzeko, imitatu nahi den pertsonaren entrenamendu-datuak bildu behar dira. Datu horietan pertsonaren argazkiak eta bideoak sar daitezke, hainbat angelutatik, iluminazio ezberdinarekin... Zenbat eta entrenamendu-datu gehiago izan, orduan eta hobeaz izango da azken emaitza.

2 | Eredua entrenatzea. Behin entrenamendu-datuak eskuratu ondoren, ikaste sakoneko eredu bat entrenatu behar da, imitatu nahi den pertsonaren itxura eta portaera imitatzen ikas dezan. Hori egiteko, ikaste automatikoko algoritmoak eta irudiak prozesatzeko teknikak erabiltzen dira, entrenamendu-datuak aztertu eta datuotatik ikasteko.

i Informazio gehiago

Ikaste sakona (*deep learning* ingelesez) adimen artifizialeko metodo bat da, konputagailuak zereginak egiteko entrenatzen dituen giza pentsamendua kopiatzeko saiakera egiten duen algoritmo baten bitartez. Esteka honetan duzu informazio gehiago: e.digitall.org.es/deep-learning

3 | Deepfake teknikarekin edukia sortzea. Behin ereduak entrenatu ondoren, deepfake teknika erabilia eduki jakin bat sortzeko erabil daiteke. Horretarako, ereduak sortutako irudia beste pertsona baten gorputzean jartzen da bideo batean, imitatzen ari den pertsona benetan hitz egiten edo ekintza bat egiten ari dela irudikatzen.

4 | Emaitza fintzea. Baliteke emaitza perfektua ez izatea deepfake teknika erabiltzen den lehen aldian. Horregatik, ereduaren parametroak doitu eta emaitza hainbat aldiz findu behar da emaitza errealistagoa lortzeko.

OHARRA

Kode irekiko zenbait tresna eta software-programa daude, ikaste sakoneko algoritmoak eta deepfake teknika erabiliz edukiak sortzeko aukera ematen dutenak. Erabiltzeko errazak diren interfaze grafikoak eskaintzen dituzten artean, honakoak nabarmentzen dira: **DeepFaceLab** (deepfakevfx.com), **FakeApp** (fakeapp.es) edo **Faceswap** (faceswap.dev).

Adimen artifiziala gero eta gehiago erabiltzen da informazio-baliabideetan, informazioa bilatzeko eta berreskuratzeko eraginkortasuna eta zehaztasuna hobetzeko. Hala ere, adimen artifizialak deepfake teknika erabilia eduki desegokiak sortzeko aukera ere ematen du, eta horrek kezka etikoak eta segurtasunekoak planteatzen ditu.





Garrantzitsua da informazio-baliabideen arduradunak eta erabiltzaileak arriskuez jabetzea, deepfake teknika erabilia sortutako eduki kaltegarrien hedapena detektatzeko eta prebenitzeko neurriak har ditzaten.

Deepfake teknika erabilia sortutako edukien gaineko hezkuntza eta sentsibilizazioa funtsezkoak dira informazioaren osotasuna eta pertsonen pribatutasuna babesteko.

Kasu errealak

Jarraian, deepfake teknika erabilia sortutako edukien zenbait benetako kasu jaso ditugu, horrelako egoeren ondorio etiko eta legalak islatzen dituztenak.


- **Barack Obamaren bideo faltsua.** Washingtingo Unibertsitateko zenbait ikertzailek Barack Obamaren bideo faltsu bat sortu zuten 2017an, Ameriketako Estatu Batuetako presidentearen lorpenei buruz hitz egiteko. **Bideoa** (e.digitall.org.es/video-obama) deepfake teknikak eskaintzen dituen aukerak erakusteko sortu zen, baina, aldi berean, eztabaida handia sortu zuen horrelako erabilerek dituzten arriskuak azaleratu zituelako.
- **Mark Zuckerbergen bideo faltsua.** Instagramen Mark Zuckerbergen **bideo** bat argitaratu zen 2019an (e.digitall.org.es/video-mark). Bertan, Zuckerbergekek Facebookeko erabiltzaileei lapurtutako datuak kontrolatzen zituela aitortzen zuen. Bada, bideoa faltsua zen eta bi artista britainiarrek eta agentzia israeldar batek sortu zuten, sare sozialen erabiltzaileen pribatutasuna babestearen garrantziaz kontzientziatzeko kanpaina baten barruan.
- **Jon Snow aktorearen bideo faltsua.** "Game of Thrones" telesail ezaguneko aktorea **YouTubeko bideo batean** (e.digitall.org.es/jon-snow) agertzen da, telesailaren azken denboraldiagatik barkamena eskatzen, umore kutsuko bideo faltsu batean.



Aipatutako bideo faltsuak deepfake teknika erabilia egindako benetako iruzurren adibide gutxi batzuk besterik ez dira. Azaldu bezala, deepfake teknika entretenimenduko edukiak edo eduki artistikoak sortzeko erabil daiteke, satira eta komedia kutsukoak, eduki kritikoak sortzeko. Aldiz, deepfake teknika modu desegokian erabiliz gero, informazio engainagarria zabaldu daiteke, eta jazarpena, estorsioa edo bestelako jokabide kaltegarriak eragin. Horregatik, erakundeak eta gobernuek lanean ari dira teknologia berriek dakartzaten jardunbideak arautzeko politikak ezartzeko. Era berean, enpresa teknologikoei eskatzen zaie erabiltzaileak desinformaziotik babesteko politikak indarrean jar ditzatela.

OHARRA

Deepfake teknikarekin egindako edukiak detektatzeko eta zabal ez daitezkeen lortzeko baliabideak eta tresnak eskaintzen dituzten plataformak daude, adibidez **Deeprtrace** (deeprtrace.tech) edo **Sensity** (sensity.ai/deepfakes-detection).






DigitAll

Informazioa eta datuak
bilatzea eta kudeatzea

1.3

DATUAK, INFORMAZIOA ETA EDUKI DIGITALAK KUDEATZEA





Informazioa eta datuak
bilatzea eta kudeatzea

B1 maila 1.3 Datuak, informazioa eta
eduki digitalak kudeatzea

Informazioa kudeatzea





Informazioa kudeatzea

Edukiak sortzea

Web-orriak, iritzi-blogak, komunikabideak edo sare sozialak elikatzeko eduki digitalak sortzea mundu mailan ekarpen oso garrantzitsua egiten duen jarduera da. Gaur egungo erronka garrantzitsuenetako bat edukien egiazkotasuna eta kalitatea bermatzea da, bai eta edukiak metainformazio zehatzarekin etiketatzea eta jabetza intelektuala behar bezala kudeatzea ere.

IDEIA batetik abiatuta, izandako ideiarri buruzko guztiaren IKERKETA abiatzen dugu, alde zuzenetik eginda dagoen lana, testuingurua eta irismena barne hartuta. Abiapuntu horretatik, sortu beharreko edukiaren HELBURUAK eta ANTOLAKETA-EGITURA zehazten dira. Ondoren, eduki digitala SORTU behar da, betiere izandako informazio-iturriak eta erabilitako hirugarrenen baliabideak aipatuz. Azkenik, egindakoa EBALUATU eta BERRIKUSI egin behar da, ARGITARATU aurreko azken urrats gisa.



DATUEN ERABILERA ETIKOA ETA FIDAGARRITASUNA

Webguneen bidez herritarrekin partekatzen diren datu fidagarriak sortzen dituzten erakunde tematikoak daude. Bideoan, eduki berria sortzeko datu multzo ireki batera nola sartu azaltzen da, bai eta prozesuan kontuan hartu beharreko alderdi etikoak ere.

e.digitall.org.es/A1C13B1V06

Informazio gehiago

Internerara sarbidea globalizatu izanak gizartean eragina duten edukiak sortzeko aukera errazten die herritarrei. Aipatutakoaren adibide dira 2011ko Egiptoko iraultza eta Black Lives Matter eta Me Too bezalako gizarte-mugimenduak. Esteka honetan duzu informazio gehiago: en.wikipedia.org/wiki/Content_creation



Etika informazioaren erabileran

Infoetika edo informazioaren etikak definitzen du teknologia informatikoen garapenari eta aplikazioari dagokionez giza jarduera arautzen duten arau moralen multzoa. Besteak beste, eduki digitalak sortzearekin eta banatzearekin lotutako arazoez eta edukiok gizartean duten eraginaz arduratzen da.

i Informazio gehiago

Aztertzen ari garen arloan balio etikoak sortzearen emaitza nabarmenetako bat Ezagutzaren Gizarte Jasangarri Baterako Eskubide Zibilen Gutuna da, Berlingo gizarte zibilak eta Heinrich Böll fundazioak sortutakoa. Esteka honetan duzu informazio gehiago: e.digitall.org.es/heinrich-boll

Infoetika oso diziplina berria da, 1980an hasi baitzen planteatzen.

i Informazio gehiago

Infoetika XXI. mendearen hasieran sortu zen, *information ethics* kontzeptu ingelesetik abiatuta. Hasiera batean bibliotekologiaren testuinguruan sortu bazen ere, informazioaren teknologien ezaugarri moraletara hedatu da. Informazio gehiago lor dezakezu esteka honetan: e.digitall.org.es/infoetica

Kulturaren sustapenaren eta egile-eskubideen babesaren testuinguruan, Creative Commons fundazioa aitzindaria izan da edukiak sortzea, erabiltzea eta partekatzea errazten duen doako esparru juridiko bat garatzen.

i Informazio gehiago

Creative Commons fundazioa 2001ean sortu zen, edukiak sortzeko eta banatzeko lizentziak kudeatzeko helburuarekin. 2019an, Creative Commons lizentziaren batekin banatutako ia 2 bilioi eduki zeuden Interneten. Esteka honetan duzu informazio gehiago: es.wikipedia.org/wiki/Creative_Commons





Erabilera-kasua: dibortzioen estatistikak jasotzen dituen txostena


Jarrian, eduki digitalen sorkuntza irudikatzen duen adibide bat planteatuko dugu. Erabilera-kasu zehatz bati helduko diogu, eta dokumentu honen lehen atalean jasotako jarduera-sekuentziari jarraituko diogu.

Hasierako ideia

Hasierako ideia gisa, Espainiako urteko dibortzio-kopuruaren bilakaera aztertzea planteatu dugu, 1980tik 2022ra zehazki.

Ikerketa eta datuak eta erreferentziak lortzea

Google bilatzailea erabiliko dugu gako hitz hauekin bilaketak egiteko: *estadísticas divorcios España 1980 a 2022*.



1. irudia. Espainian 1980 eta 2022 bitartean izandako dibortzioen informazio estatistikoa bilatzeko egindako bilaketaren emaitzak. *Iturria: Google bilatzailean egindako bilaketaren emaitzen pantaila-argazkia.*



Emaitzak aztertuz gero, Espainiako Estatistika Institutuarekin lotutako emaitzak daude lehen posizioetan, eta, ondoren, emaitzak aurkezten dituzten eduki landuak eskaintzen dituzten webguneetako albisteak.

Espainiako Estatistika Institutuaren webgunea kontsultatzen badugu, ikus dezakegu 1998tik 2021era bitarteko ezkontza-deuseztasunen, bereizketen eta dibortzioen datuak berreskuratzeko aukera ematen digula.

EpData.es webguneko artikuluak, 2022ko uztailaren 15ean eguneratutako informazioa eskaintzen du, 2009 eta 2020 bitarteko datuekin. Urtetik urtera datuetan izandako gorabeherari buruzko informazioa ere aurkezten du.

Expansión/Datosmacro.com webgunean jasotako edukia 1981 eta 2021 arteko dibortzioen informazioa jasotzen duen taula bat da, tartean dibortzioen tasa gordina jasotzen duen zutabe bat eta aldi horretako joeraren grafiko bat eta guzti.

Azken bi emaitzak ezkontzen estatistikak jasotzen dituen Expansión/Datosmacro.com webguneko orri bat eta Maldita.es webguneko 2022ko irailaren 13ko artikulu bat dira, 1996 eta 2021 bitarteko Espainiako Estatistika Institutuaren ezkontzen eta dibortzioen datuak aztertzen dituen. Gainera, txostenaren estatistikak eta grafikoak egiteko erabilitako metodologiari buruzko azken atala bat ere bada tartean.

Azkenik, aurreko bilaketa iragazi eta emaitzak berrienetik zaharreneira ordenatzeko eskatzen badugu, Statista webgunearen artikulu bat aurkitzen dugu, epData.es atariak emandako antzeko informazioarekin.

Webean aurkitutako informazio guztia gorde ahal izateko, nabigatzaileak orri gogokoenak kudeatzeko eskaintzen duen aukera erabil dezakegu, karpeta bat sortuz eta bertan URL guztiak gordez.



**ESPAINIAKO ESTADISTIKA
INSTITUTUA. EZKONTZA-
DEUSEZTASUNAK,
BEREIZKETAK ETA
DIBORTZIOAK**

e.digitall.org.es/estadisticas-ine



**EPDATA. EZKONTZAK,
DIBORTZIOAK,
BEREIZKETAK.**

e.digitall.org.es/epdata



**EXPANSION /
DATOSMACRO.COM**

e.digitall.org.es/datosmacro



MALDITA.ES

e.digitall.org.es/maldita



STATISTA

e.digitall.org.es/statista



MARKATZAILEAK ETA INFORMAZIOA ANTOLATZEKO DUTEN GARRANTZIA


Markatzaileak definitu eta informazioa bilatzeko eta iragazteko duten garrantzia azaltzen da. Web-markatzaileak eta sare sozialetako eduki-markatzaileak bereizten dira.

e.digitall.org.es/A1C11B1V04



Prozesuan bildutako informazio guztia eta edukia sortzeko bitarteko gisa sortu behar duguna antolatzeke, lan-direktorio bat erabil/sor dezakegu gure ekipoko barne-memorian.

Gainera, lan kolaboratibo bat egiten ari bagara edo ekipo bat baino gehiago erabiltzen ari bagara lana egiteko, Cloud biltegiatze-karpeta bat sor dezakegu. Bertan, aurkitutako web-orrietan lortutako irudiak gorde ahal izango ditugu, edo garatzen ari garen kalkulu-orriak edo gainerako dokumentuak. Baliabide guztiak ondo antolatuta izateko, karpeta-egitura bat sor dezakegu (Informe_divorcios_1980_2022), eta, egitura horren barruan, karpeta gehiago sortzen joan eduki motaren arabera. Adibidez, karpeta nagusiak (Informe_divorcios_1980_2022), lantzen ari garen dokumentuaz gain (informe_divorcios_2023_02_01_v2.docx), irudiak (imagenes), kalkulu-orriak (hojas_de_calculo) eta segurtasun-kopiak (backups) gordetzeko karpeta indibidualak izan ditzake.



2. irudia. Txostenarekin lotutako fitxategi guztiak gordetzeko Google Driveko karpeten egitura.

Helburuen zehaztapena

Aurreko emaitzen azterketak agerian uzten du ez dugula aurkitu hasieran planteatutakoa bezalako analisi sinple bat jasotzen duen txostenik. Bilatzen genuenaren antzekoena Expansión/Datosmacro.com webgunekoa litzateke, baina ez du zehazten ez zer iturri erabiltzen dituen ez zer metodologia erabili den. Aurkitutako gainerako webguneek 2006tik aurrerako informazioa baino ez dute jasotzen, eta estatistika landuagoak aurkezten dituzte.

Bestalde, Espainiako Estatistika Institutuak dibortzioei, banaketei eta ezkontza-deuseztasunei buruzko estatistikak eguneratzen ditu urtero, uztailean. Hala, planteia genezake txosten eguneratu bat egitea uztailean, behin Espainiako Estatistika Institutuak datuak eguneratu eta sarean argitaratzen dituenean.

Txostenaren egitura

Egin beharreko txostenak edukia sartzeko egitura bat izan lezake, aurkitutako artikuluen erreferentziekin. Gainera, erreferentzia gisa aurkitutako webguneetako URL helbideak ere gehituko lirateke, non eta txostenaren amaieran gehituko genukeen bibliografia-atal batean.




Datu gordinekin taula-formatu bat ere erabil genezake, erreferentzia gisa adieraziz iturria Espainiako Estatistika Institutua dela, eta Microsoft Excel erabilia egindako grafiko bat ere sar genezake.

Edukiak sortzea

Hurrengo urratsa txostena egitea litzateke, betiere egin nahi dugun azken argitalpen motara hobekien egokitzen den formatua aukeratuta. Wordpresseko blog baterako post bat bada, blogaren editorea bera erabil dezakegu. Aldiz, txostena azkenean PDF formatuan izatea nahi baldin badugu, Google Docs erabil dezakegu txostena egiteko, eta, ondoren, PDF formatura esportatu dezakegu.

Bai “.docx” formatuko dokumentua bai “.pdf” formatu eramangarriko Acrobat dokumentua karpeta nagusian gorde daitezke. Bestalde, egunean zehar lanaren hainbat bertsio sortzen baditugu, data eta bertsioa zehaztu ditzakegu dokumentuaren izenean. Aztertutako adibidean, izena honakoa litzateke adibidez: Informe_divorcios_2023_02_01_v4.



3. irudia. Google Driveko karpeten egituraren adibidea, dataren eta bertsio-zenbakiaren arabera izendatutako dokumentuaren hainbat bertsioekin.

Ebaluazioa eta berrikuspena


Behin txostena sortu ondoren, emaitzak azter ditzakegu, sartutako azken datuen joeran aldaketa esanguratsurik dagoen ikusteko. Hori gertatzen bada, hipotesiren bat lantzen duen iritzi-artikuluren bat bilatzen saiatu gaitezke, eta edukia ondorio esanguratsuekin osatu.



Hirugarren baten analisisa edo iritzia erabiliko balitz, erreferentzia egin eta URL helbidea sartu beharko litzateke txostenaren bibliografian.

Edukia berrikusteari dagokionez, gomendagarria da beste pertsona batzuek berrikustea, zer iritzi duten jakiteko eta aurkezpena nahiz edukia bera hobetzeko.

Behin betiko dokumentua sortzen ari den bitartean, interesgarria izan daiteke bertsioak gordetzen joatea segurtasun-kopien (backups) karpetan, zer bertsio den behar bezala identifikatuta. Behin betiko bertsioa nabarmentzeko, zehaztapen espezifiko bat sar daiteke izenean, adibidez: Informe_divorcios_2023_02_final.docx.



4. irudia. Google Driven karpeten egituraren adibidea, dokumentuaren zenbait bertsioen segurtasun kopiak gordetzeko karpeta eta guzti.

Argitalpena

Prozesuaren azken urrats gisa, edukia dagokion formatu digitalean argitaratuko genuke. Garrantzitsua da gure egiletza zehaztea eta edukiari lizentzia-motaren bat ematea. Gainera, txostenaren irakurleei gurekin harremanetan jartzeko bitartekoren bat ematea ere gomendagarria da, adibidez gure helbide elektronikoa.

Argitalpena hainbat modutan egin daiteke, adibidez, Wordpressen blog bat baliatuta edo beste erabiltzaile batzuekin partekatutako Google-Drive gordailu baten bidez.



DigitAll

Gaitasun
digitaletan
prestakuntza



Coordinación General

Universidad de Castilla-La Mancha
Carlos González Morcillo
Francisco Parreño Torres

Coordinadores de área

Área 1. Búsqueda y gestión de información y datos

Universidad de Zaragoza
Francisco Javier Fabra Caro

Área 2. Comunicación y colaboración

Universidad de Sevilla
Francisco Javier Fabra Caro
Francisco de Asís Gómez Rodríguez
José Mariano González Romano
Juan Ramón Lacalle Remigio
Julio Cabero Almenara
María Ángeles Borrueco Rosa

Área 3. Creación de contenidos digitales

Universidad de Castilla-La Mancha
David Vallejo Fernández
Javier Alonso Albusac Jiménez
José Jesús Castro Sánchez

Área 4. Seguridad

Universidade da Coruña
Ana M. Peña Cabanas
José Antonio García Naya
Manuel García Torre

Área 5. Resolución de problemas

UNED
Jesús González Boticario

Coordinadores de nivel

Nivel A1

Universidad de Zaragoza
Ana Lucía Esteban Sánchez
Francisco Javier Fabra Caro

Nivel A2

Universidad de Córdoba
Juan Antonio Romero del Castillo
Sebastián Rubio García

Nivel B1

Universidad de Sevilla
Francisco de Asís Gómez Rodríguez
José Mariano González Romano
Juan Ramón Lacalle Remigio
Montserrat Argandoña Bertran

Nivel B2

Universidad de Castilla-La Mancha
María del Carmen Carrión Espinosa
Rafael Casado González
Víctor Manuel Ruiz Penichet

Nivel C1

UNED
Antonio Galisteo del Valle

Nivel C2

UNED
Antonio Galisteo del Valle

Maquetación

Universidad de Salamanca
Fernando De la Prieta Pintado
Pilar Vega Pérez
Sara Alejandra Labrador Martín

Creadores de contenido

Área 1. Búsqueda y gestión de información y datos

1.1 Navegar, buscar y filtrar datos, información y contenidos digitales

Universidad de Huelva

Ana Duarte Hueros (coord.)
Arantxa Vizcaíno Verdú
Carmen González Castillo
Dieter R. Fuentes Cancell
Elisabetta Brandi
José Antonio Alfonso Sánchez
José Ignacio Aguaded
Mónica Bonilla del Río
Odriel Estrada Molina
Tomás de J. Mateo Sanguino (coord.)

1.2 Evaluar datos, información y contenidos digitales

Universidad de Zaragoza

Ana Belén Martínez Martínez
Ana María López Torres
Francisco Javier Fabra Caro
José Antonio Simón Lázaro
Laura Bordonaba Plou
María Sol Arqued Ribes
Raquel Trillo Lado

1.3 Gestión de datos, información y contenidos digitales

Universidad de Zaragoza

Ana Belén Martínez Martínez
Francisco Javier Fabra Caro
Gregorio de Miguel Casado
Sergio Ilarri Artigas

Área 2. Comunicación y colaboración

2.1 Interactuar a través de tecnología digitales

Iseazy

2.2 Compartir a través de tecnologías digitales

Universidad de Sevilla

Alién García Hernández
Daniel Agüera García
Jonatan Castaño Muñoz
José Candón Mena
José Luis Guisado Lizar

2.3 Participación ciudadana a través de las tecnologías digitales

Universidad de Sevilla

Ana Mancera Rueda
Félix Biscarri Triviño
Francisco de Asís Gómez Rodríguez
Jorge Ruiz Morales
José Manuel Sánchez García
Juan Pablo Mora Gutiérrez
Manuel Ortigueira Sánchez
Raúl Gómez Bizcocho

2.4 Colaboración a través de las tecnologías digitales

Universidad de Sevilla

Belén Vega Márquez
David Vila Viñas
Francisco de Asís Gómez Rodríguez
Julio Barroso Osuna
María Puig Gutiérrez
Miguel Ángel Olivero González
Óscar Manuel Gallego Pérez
Paula Marcelo Martínez

2.5 Comportamiento en la red

Universidad de Sevilla

Ana Mancera Rueda
Eva Mateos Núñez
Juan Pablo Mora Gutiérrez
Óscar Manuel Gallego Pérez

2.6 Gestión de la identidad digital

Iseazy

Área 3. Creación de contenidos digitales

3.1 Desarrollo de contenidos

Universidad de Castilla-La Mancha

Carlos Alberto Castillo Sarmiento
Diego Cordero Contreras
Inmaculada Ballesteros Yáñez
José Ramón Rodríguez Rodríguez
Rubén Grande Muñoz

3.2 Integración y reelaboración de contenido digital

Universidad de Castilla-La Mancha

José Ángel Martín Baos
Julio Alberto López Gómez
Ricardo García Ródenas

3.3 Derechos de autor (copyright) y licencias de propiedad intelectual

Universidad de Castilla-La Mancha

Gabriela Raquel Gallicchio Platino
Gerardo Alain Marquet García

3.4 Programación

Universidad de Castilla-La Mancha

Carmen Lacave Roderó
David Vallejo Fernández
Javier Alonso Albusac Jiménez
Jesús Serrano Guerrero
Santiago Sánchez Sobrino
Vanesa Herrera Tirado

Área 4. Seguridad

4.1 Protección de dispositivos

Universidade da Coruña

Antonio Daniel López Rivas
José Manuel Vázquez Naya
Martíño Rivera Dourado
Rubén Pérez Jove

4.2 Protección de datos personales y privacidad

Universidad de Córdoba

Aida Gema de Haro García
Ezequiel Herruzo Gómez
Francisco José Madrid Cuevas
José Manuel Palomares Muñoz
Juan Antonio Romero del Castillo
Manuel Izquierdo Carrasco

4.3 Protección de la salud y del bienestar

Universidade da Coruña

Javier Pereira Loureiro
Laura Nieto Riveiro
Laura Rodríguez Gesto
Manuel Lagos Rodríguez
María Betania Groba González
María del Carmen Miranda Duro
Nereida María Canosa Domínguez
Patricia Concheiro Moscoso
Thais Pousada García

4.4 Protección medioambiental

Universidad de Córdoba

Alberto Membrillo del Pozo
Alicia Jurado López
Luis Sánchez Vázquez
María Victoria Gil Cerezo

Área 5. Resolución de problemas

5.1 Resolución de problemas técnicos

Iseazy

5.2 Identificación de necesidades y respuestas tecnológicas

Iseazy

5.3 Uso creativo de la tecnología digital

Iseazy

5.4 Identificar lagunas en las competencias digitales

Iseazy



El material del proyecto DigitAll se distribuye bajo licencia CC BY-NC-SA 4.0. Puede obtener los detalles de la licencia completa en: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.es>